



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Zinema biografikoa

Paul Ricoeur filosofoak idatzi zuen gure identitateak narratiboak direla. Gure burua azaltzeko orduan, gure biografia sortzen dugu-

la. Aurreko urtean plazaratutako bi filmek biografiaren eraikuntza hori ardatz dutela iruditzen zait. Bata Maixabel (Iciar Bollain, 2021) da, Maixabel Lasaren istorioa kontatzen duena, bere senarra zen Juan Mari Jauregi ETak hil zuenetik aurrera. Bestea Érase una vez en Euskadi (Manu Gómez, 2021), Gipuzkoako herri batean 1980ko hamarkadan dauden gaztetxo batzuei buruzkoa.

Lehenean badago pasarte bat Maixabel ETako kide batekin elkartzen dena. Etakideak bere bizia kontatzen dio eta Maixabelek berea eta bere senarrarena. Filmeko unerik interesgarriena da, nolabait bi bizitza tragikoki gurutzatu ziren unea berreraikitzeke eta testuinguratzeko aukera ematen baitu. Baina, zoritxarrez, filmeko une interesgarri bakarra iruditut zait. Gainontzekoan, beste filme askotan bezala, ohiko diskurtsoak eta arketipoak errepikatzen dirae

Diskurtso errepikakor horretan, heldu batek (Estatua) haur bati (etakidea) hitz egiten dio. Hobe esanik, errieta egiten dio. Etakidea zibilizazioa eta moraltasun justua ezagutzen dituen beste norbaitek hezi behar du, arauak eta bizikidetzara oraindik ondo ulertzen ez dituen haur bat balitz bezala. Benetako moralara ezagutu behar du, eguzkia eta jainko paganoak gurtzei utzi. Eta parabola erlijioso onenetan bezalaxe, etakideek fede berria errebelazio baten bidez lortzen dute. Piztia izateari utzi eta eskainitako ongia bere

egiten dute. Oso eboluzio bat-batekoa da, dialektikarik gabea. Bestetik, Estatuaren ordezkariak moral absolutua eta egonkorra du. Bere bizitza guztian zehar puru mantendu duena. Horrelako arketipoek, barkaiezadazue broma, Ken Loach nabarduren errege bihurtzen dute.

Bigarren filmean zuzendariak bere haurtzaroaren berraketa egiten du. Kasu honetan, sinplista baino zertxobait masokista ere iruditut zait. Lagun batek esan zidan aurrekoan, eta ados nago, integrazioari buruzko istorioa kontatzen du. Hobe esanda, integrazioari ezari buruzko istorioa. Baina niri ez zait batere sinesgarria egin. Espainiako migrante familiek, sema koxkorrekin jada, ez dute herrian beste inor ezagutzen, batez ere emazteek. Familia bateko semea etakide bihurtzen denean, ama, herriko plazan bizi dena, ezker abertzaleko protesta batera hurbiltzen da: “esto, lo que hacéis

aquí”. Ez omen du inongo ideiarik zer ari diren egiten edo nortzuk diren. Are gehiago, bere semearen inguruan galdetzen dien unean, isildu eta bizkarra ematen diote. Ezker abertzalekoak bereziki jende bordea ziren. Beste zenbait pasarte dispartatu ere baditu. Esanguratsuen, aita migrantei greba egiteko presio egiten diotenean. Euskal hiztunak oso gaiztoak omen ziren garai horretan, migranteak lan gatazkak konpontzeko greba egitera behartzen baitzituzten.

Azken finean, bi filmeetan familia nuklearraren eta balore tradizionalen aldarrikapena dago. ETA eta euskal nazionalismoa izan dira familiei bere rol naturalak bizitzen utzi ez dietenak (Patrian bezala, bide batez). Totalitarismoari eta ideologia maltzurrei kritikaren ustean, balore kontserbadoreak dira aldarrikatzen dituztenak. Pena da. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI